

IURRETA / Mali, elkar ezagutzeko gonbita

'Munduko Paisaiak: liburutegiak topaleku' ekimenaren baitan Mali (Afrika) ardatz hartuta erakusketa zabalduko dute, gaur, 18:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Egoitza Iurretan duen eta 2009an sortu zen Fasoden elkarteko ordezkariak parte hartuko dute ekitaldian. Baita Maliri buruz ikus-entzunekoa egin duen losu Garaik ere. Mali ardatz hartuta prestatutako erakusketaren bisita gidatua egingo dute: liburuak, filmak, musika... izango dira erakusketaren ardatz, baita bertoko artisautza ere.

Bideoforuma eta ipuin kontalariak

Erakusketaren bisita gidatua ez eze, hitzaldia ere eskainiko du Fasoden elkarteko ordezkari batek eta ikus-entzunekoa proiektatuko dute.

Biharko, azaroaren 3an, Querida Bamako pelikulagaz bideoforuma antolatu dute. Ibarretxe kultur etxean izango da hori ere, 19:00etan. Barikuan, berriz, azaroaren 4an, Oihana Etxegibel ipuin kontalariak Ipuin afrikarrak saioa eskainiko du etxeko txikienentzat, 18:00etan. Ondoren, 20:00etan, Cuentos Malienses ipuin kontakizuna hasiko du Samuel Mountoumjouek.